



BALIO PROPOSAMENA

Study(H)all erdi mailako ikasketak burutzen ari diren ikasleen behar akademikoei erantzuna emango dien plataforma birtuala da. Espainiako hezkuntza sisteman Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean, erdi mailako ikasketak burutu ditzazkete ikasleek, Erdi mailako modulu edo formakuntzak eta Batxilergoa dira bi aukerak. Batzuek bertatik zuzenean lan munduan murgiltzeko apustua egiten dute, beste batzuek ordea beren formakuntza eta hezkuntzarekin jarraitzeko asmoa izan ohi dute, hau da, goi-mailako ikasketak burutzea.

Erdi mailako hezkuntza ikastaroetatik goi-mailako ikasketetara igarotzeko bidea ez da erraza ordea. Bi urteren buruan ikasten jardun ondoren, ikasle hauek hainbat azterketa eta froga egin behar izaten dituzte ikasi nahi duten horretan sartu ahal izateko. Batxilergoko bidea hartzen bada, hautaprobak burutu behar dira, eta erdi mailako formakuntza ikastaroetatik datozenek, hainbat sarrera proba gainditu behar izaten dituzte. Nahiko prozesu estresagarri eta nekagarria izan ohi da, hori dela eta urte zail honetan, bidean lagunduko dien tresna bat sortzea erabaki dugu. Ikasleen beharrak hiru zati edo aspektutan banatu ditugu. Alde batetik antolakuntza akademikoa, beste batetik ikaste prozesua egoki burutzeko beharrezko edo lagungarri suertatu daitezken materialak eta galderak erantzuteko tresnak eta azkenik etorkizuneko ikasketetara bideratutako orientazioa. Gure proiektuak eskaintzen duen produktuak web itxura izango du, eta hiru sarrera nagusietan banatuko dira lehenago aipatutakoak. Antolakuntza akademikoaren atalaren barruan, erabiltzaile bakoitzak bere ikasketa denbora antolatzeko bideratutako metodo desberdinetarako tresna digitalak izango ditu eskura. Metodo hauek garatu ahal izateko bi profesional profil desberdinekin



lanean jardungo dugu. Alde batetik plataforma guztia sortuko duen programatzaile bat, eta beste alde batetik berriz antolakuntzan aditua den pertsona batekin lan egingo dugu. (Horretan espezializatua den psikologo batekin alegia).

Bigarren atalean, hiru aspektu desberdin bereiziko ditugu. Alde batetik materiala partekatzeko plataforma, non bakoitzak bere apunteak, eskemak eta lagungarri izan zaizkionak igo ditzazken eta era berean besteek igo dituztenak ere erabilgarri dituen. Plataforma honek bilatzaile berezi bat izango luke non ikasgaika edo material motaren arabera banatuko lirateke baliabideak. Horretaz gainera foro ireki bat izango genuke. Honela funtzionatuko luke: pertsona batek bere galdera planteatzen du, bi tag edo etiketa erabilita, alde batetik ze ikasgaitakoa den eta beste alde batetik zer gaitakoa den. (Adibidez, zer da bektore normal bat? - Matematika 2 Batxilergoko maila- Bektoreak espazioan) Besteek erantzun publikoa eman ahal izango dute, argazkiak eta bideoak edota URLak atxikitzeke aukerarekin. Azkenik Twitch (streammingean bilerak egiteko aukera ematen duen plataforma) erabilita, ikasleek batera online ikasteko saioak antolatu ahal izango dituzte.

Hirugarren atalak berriz orientazio zerbitzua eskainiko du. Bi zati nagusitan banatuko da. Alde batetik, noten kalkulurako tresna bat egongo da. Hau da, pertsona batek bere notak sartu ahal izango ditu, eta datu horrekin bi ondorio garatu ahal izango dira: besteekin alderatuta zer nota portzentai duen, hau da, ikasle guztiak ehuneko ehuna izanda bere batz bestekoarekin alderatuta zer % kokatzen den bere aurretik eta unibertsitate batera eta beste goi-mailako ikasketak eskaintzen dituen zentro batera sartzeko behar duen sarrera nota eskuratzeko zer kalifikazio atera behar dituen ikustea. Izan ere, unibertsitate batetik bestera Era berean, atal honetan makro-katalogo birtual bat jarriko dugu



ikaslearen esku, interesatzen zaizkion ikasketa eremuak aukeratuta horrekin erlazionaturiko gradu eta bestelako ikasketa guztiak eskainiko zaizkio. Horrekin batera zer unibertsitate edota eskolatakoak diren eta zer sarrera nota eta prozesu dauzkaten. Baita ikasketa planak eta prezioak ere. Horretarako hitzarmenak sortuko ditugu ikasketa horiek eskaintzen dituzten zentroekin.

Hauek beste bezero mota bat izango lirateke, hau da, plataformako erabileraz gain, ikasketa zentro eta unibertsitate hauen publizitatea egiten dugunez, beraiekin bilerak egingo ditugu informazioa lortzeko eta ahalik eta gehien interesatzen zaien publizitatea egin ahal izateko. Horren trukean diru kantitate bat eskatuko dugu. Horretaz gainera albisteen tabloi birtual bat ere egongo da eskuragarri plataforma birtualean sartu ahalaz bat. Bertan, unibertsitateen eta eskolen ate ireki eta bestelako jardunaldiak, streamingeko saio berrien ordutegiak, planteatutako galdera berriak edo emandako erantzunak agertuko dira.

Webgunearen bi erabiltzaile mota egongo dira, alde batetik harpidedunak, hauek zerbitzu guztietarako sarbidea izango dute, eta beste alde batetik erdizkako erabiltzaileak. Hauen kasuan zerbitzu jakin batzuetara baino ez dute sarbiderik izango. Lehenengo atalean adibidez, bakarrik antolamendu mota baterako tresna erabili ahal izango dute, bigarrenean foroan parte hartzeko eta streaminga egiteko baino ez dute aukerarik izango eta azkenengo zatian portzentaia ikusi eta unibertsitateen katalogo orokorrako baterako aukera, hau da, ez dute zerbitzu pertsonalizaturik izango beraien sarrera nota eta ikasketa zentroetarako onarpen prozesuaren inguruko informazioarekin.



Web honetan ematen diren antzerako zerbitzuak eskaintzen dituztenak badaude. Hau da, antolakuntzarako tresnak, materiala elkarbanatzeko webak. baina, ez dago zerbitzu hauek integroki eskaintzen dituen enpresarik, eta are gutxiago plataforma birtual baten formatuan, hau da online eta ordenagailu baten bidez eskuragarri. Horretaz gainera portzentaiaren kalkuluko tresnak oso informazio baliagarri, zehatz, eta eksklusiboa emango die ikasleei, beraien noten eta egin beharreko lanaren inguruko ideia garbi bat eskainiz. Eta ikasketa zentro eta unibertsitateekin dugun harreman estuari esker, etorkizunera begira ere informazio zehatza eskaini ahal izango diegu, eta sarrera prozesu nahasgarria nolabait argitu.

N2J TALDEA